




WIKI LIBURU TEGIAK

EDUKI DIGITALEN
SORKUNTZA WIKIPEDIAN



Donostia Kulturak **Wikiliburutegiak** proiektua bultzatzen du, Euskal Wikilarien Kultura Elkartarekin eta Euskal Idazleen Elkartearekin elkarlanean, eduki digitalen sorkuntza euskal wikipedia indartzuz.

Proiektu honek bi ekimen barne hartzen ditu:

2015-2016 ikasturtetik aurrera, **Haur eta Gazte Literatura wikiproiektua** garatzen ari da, Haur Liburuaren Dokumentaziogunea eta Euskal Herriko Unibertsitateko Donostiako Irakasleen Eskolarekin elkarlanean. Wikiproiektu honek haur eta gazte literaturako edukiak sortzea eta partaideen prestakuntza digitala sustatzea ditu helburu.

2017an **Idazlezainak wikiproiektua** abiatu zen hainbat erakundetako liburuzainen parte-hartzearekin: Donostiako Udal Liburutegien Sarea, Koldo Mitxelena Liburutegia eta HABE Liburutegia. Hasieran Euskal Literaturaren egileen artikuluak osatu eta eguneratu ziren. 2018tik aurrera **Hezkuntza Egitasmoarekin** bat egin zen, Literatura Unibertsaleko edukiak lantzeko. Modu honetan, 12-16 urteko ikasleek kalitatezko artikuluak topatu ahalko dituzte euskaraz Wikipedian, beste hizkuntzetara jo behar izan gabe. Hasteko, jada euskaraz irakurri ditzakegun egileen artikuluak landuko dituzte eta horretarako EIZIEk (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarte) egindako Literatura Unibertsala Bilduma hartu da oinarri.